



FUNTSEZKO JARDUERAK

EKOIZPEN JARDUERAK:

Gure zerbitzuak sortzeko, beste enpresa batzuekin jartzen gara kontaktuan haiek produktuak ekoizteko.

QR eskanerrak erosiko genituzke, honekin atea irekitzeko eta aplikazioa sortzeko sistema bat sortuz. Horretarako, gure hornitzaileekin (<https://www.teknometric.com/>) jarri beharko ginateke kontaktuan eta gure eskanerraren zehaztasunak azaldu haiek egoki ekoitzi ahal izateko. Gainera, enpresa bera izango da instalatuko duena, beraz atal hori ere adostu beharko genuke.

Beste hornitzaileak postontziak eraikitzen dituztenak dira: <https://www.solobuzones.es/Buzones-para-comunidad>. Haiekin ere kontaktuan jarri beharko ginateke, kasu honetan gure diseinua erakutsi beharko genieke nahi dugun bezala ekoitzi dezaten. Eta behin ekoitzita, haien esku egongo litzateke ere eraikin bakoitzean jartzea.

Gure esku egongo dena:

Aplikazioa guk sortuko genuke, beraz egin beharreko jardueren artean, aplikazioa sortzea eta diseinatzea egongo litzake, guztientzat eskuragarri egoteko. Garrantzitsua da guretzat erabiltzeko erraza izatea, aurretik azaldu dugun bezala.

Era berean, web orrialdea sortu eta diseinatu beharko dugu, gure produktuari buruzko informazioa eta kontaktua ahalbidetzeko.

Bezeroak gurekin kontaktuan jarriko dira gure zerbitzuak kontratatzeko, eta zerbitzua instalatzearen momentuan, Teknometrik eta Solobuzones enpresetako langileekin batera, gure enpresako pertsona bat egongo da hor, bezeroekiko harremana pertsonala izateko eta konfiantza gehiago emateko.

MERKATURATZE JARDUERAK

Gure produktua merkaturatzeko behin finketako administratzaileekin hitz eginda (hori portalen kasuan. Kirol-zentroen kasuan, kirol-zentroetako batzordearekin. Eta eraikinaren mantenimenduaren kasuan, lorezain edo garbitzaile enpresekin.) Haien esku egongo da gure zerbitzua instalatzea onartzea eta orduan martxan jarriko dugu.



FUNTSEZKO JARDUERAK

Horrez gain, merkaturatzeko, sare sozialetan kontu bat sortu eta gure produktuari buruzko informazioa jarriko dugu. Horrela, gure produktua jende gehiagok ezagutu ahal izango du.

Helburu berdinarekin, gure enpresako komertziala, publizitateaz arduratuko da.

ORGANIGRAMA

Gure enpresaren organigramari dagokionez; Lau gara, eta bakoitzaren zeregina hurrengoa izango da:

- Bezeroarekiko harremanak: Itxaso Calvo. Bezeroen arretaz arduratu, deiak hartu eta arazoak konpondu.
- Kontuak: Irantzu Barrenetxea. Diru-sarrerak eta kontu guztiak antolatzeaz arduratu.
- Komertziala: Candela Albizuri. Produktuaren publizitateaz arduratu, hitzaldiak emanez eta gure produktua ezaguna egiten saiatuz.
- Hornitzaileekiko harremana: Josu de Velasco. Hornitzaileekin kontaktuan jarri (bi hornitzaile nagusi: buzoia sortzen dutenak eta QR eskanerrak instalatzen dituztenak).

Guztiok izango dugu pisu bera enpresan, hau da, bat ez da izango besteen buru.